

18.
urteurrena

ortzadar

larunbata, 2015eko uztailaren 18a. 412. zenbakia

deia.com

euskal kulturaren kolore guztiak

MUNDAKA FESTIVAL

Euskal Herriko
doinuak izango dira
nagusi Santa Katalinan
egingo den jaialdi
berrian

-- 4-5. orrialdeak --




KRITIKA IBON EGAÑA

'Gu'-tik 'ni'-ra

TITULUA: 'KOLDAR HUTSA ZARA'

EGILEA: ARITZ GORROTXATEGI

ARGITALETXEA: EREIN

B ANAKOAREN eta kolekti-boaren arteko talka, *ni*-aren eta *gu*-aren arteko gataska da ziurrenik mendebaldeko nobelaren gai nagusietako bat, eta horixe hartu du ardatz Aritz Gorrotxategi bere laugarren nobela ontzeko. *Gu* baten kontaketa heldu dio donostiarrak, Peru protagonistaren *ni*-aren ikuspegitik, bien kontraste sakonduz pixkanaka eta *ni*-an zentratuz gero eta gehiago.

1990eko hamarkadaren erdialdeko Donostia da kokalekua, eta taldea, berriz, Krapula izeneko tabernan biltzen diren hogeita gutxi urteko gazteek osatzen dute, unibertitate-ikasleak eta pretensio literario-artistikoak dituztenak batzuk. Halakoa da Peru, Euskal Filologia-ko ikaslea, idazlegai frustratua, Nietzsche-ren irakurlea, utopieko eszeptiko xamarra eta ezinbestean aldearekiko jarrera anbivalentea duen gaztea. Haren ikuspegitik eta lehen pertsona ezagutuko ditu irakurleak gazte-taldearen egunerokotasuna eta eztabaidak: sexu eta bikote-harremanak,


literaturaren eta artearen inguruko solasaldiak, eta baita gai sozio-politikoei buruzkoak ere. Laurogeita hamarrekota hamarkadak Donostian, izan ere, paisiairen parte dira lazo urdinak, kale borroka, Y taldeen kontrako errepresioa edo liburu-denden harri-katzeak. Taldean nolabaiteko onarpenera duen indarkeria politikoa-erekiko kritikoa da Peru, eta horrek darama, besteak beste, taldetik *gu*-tik apurka urruntzera.

Nobela aski korala da *Koldar hutsa zara*, belaunaldi baten testigantza jaso nahi duena. Eskertzekoa den hurbiltasun eta sinesgarritasunez birsortu du garaia Gorrotxategi. Haatik, koraltasunak hein batean nobelaren kaltetan jotzen dutela egingo nuke, pertsonaien, harien eta gaien ugaritasunak haietan behar beste barneratzea eragozten baitute maiz. Gai askotarikoei buruzko gogoetak tabernako lagunak elkarriketen bidez txertatzen dira liburuan sarritan, eta narratzailearen ahotsean beste batzuetan. Zenbaitetan, justifikazio narratibo ahulekoak iruditu

zaizkit hainbat gogoeta, egileak pertsonaiei hainbat gairi buruz hitz eginarazi nahiko balie bezala.

Eleberriarren bigarren atalean, *gu*-tik *ni*-ra egiten du narrazioak, eta 20 urte beranduagoko, gaur eguneko Peru da mintzo dena, institutu bateko irakaslea, aita ustez monogamo. Gaztetan eszeptikoa izandako gizona nihilismotik geratu dago orain, sexuan eta haragian baizik federik ez duela. Klase ertaineko gizon heterosexuaren dekadentziarena da bigarren ataleko Peruren ahotza, lehenengoan baino markatuagoa eta pertsonalagoa. Hariak eta gaiak mugatuta eta ahotsari sendotasuna emanda, bestelako trinkotasun bat irabazten du nobelak, nahiz eta batzuetan ahotza inpostatu egin zaidan, tradizio literario jakin bati lotuegia.

Edonola ere, garai baten memoria ikuspuntu etiko eta politikoa jakin batetik berreskuratzeko ahalegin interesgarria da Gorrotxategirena, malda gorarik gabeko irakurketa bizia eskaintzen duena, gainera.



Hariak eta gaiak mugatuta eta ahotsari sendotasuna emanda, bestelako trinkotasun bat irabazten du nobelak bigarren zatian

JABI SOTO-REN BEGIRADA

(Gasteiz, 1976)



Ikus:
Webgunea: www.jabisoto.com

SALDUENAK

Fikzioa

- Atertu arte itxaron**
Katixa Agirre. Elkar.
- Maite dut**
Lorena Martinez. Edo!
- Perlak, kolpeak...**
Joxemari Iturralde. Pamiela.

Ez Fikzioa

- Euskal Herriko historia...**
J. Asiron, M. Alzueta. Erein.
- Back to Leizarraga**
Kepa Altonaga. Pamiela.
- Euskal Herriko mitologia...**
Koldo Aljostes. Autoedizioa.

ITURRIA: Elkar.

ERAKUSLEIHOA

POESIA

'Argia, lurra, zuhaitza, zerua'

Jon Gerediaga.
Pamiela. 112 orr. 13 euro.

Iraun behar duten gauzen alde

Naturak garrantzi berezia dauka Jon Gerediagaren (Bilbo, 1975) lau-garren poema liburuan. Izenburuan bertan ageri diren naturako elementuak erabili ditu egileak bizitzaren gorabeheren gainean hausnartzeko, eta guztietan denbora da ardatza, harrapatu nahi eta eskuetatik ihes egiten duena. 90 bat poema laburrek osatzen dute liburua, baina poema luze baten antzera ere irakur daitezke.

LITERATURA

'Txantxaberde kantaria'

Joan Mari Irigoien,
Pamiela, 230 orr. 12 euro.

Altzari eginiko oparia

Hamarkadak eman ditu Joan Mari Irigoienek Elkar etxearen bidez libururak plazaratzen. Oraingo liburua autoeditatu egin du, ordea, izan ere ohi ez bezalakoa da: olerki, gogoeta eta txiste moduko batzuen bilduma. Altzari jendeari egin nahi izan dion oparia dela jakinarazi du egileak. Halaber, liburuaren azalean ageri den txantxangorria ekologismoaren sinbolotzat hartzen du Irigoienek, horixe baita, ekologismoa, liburuaren ildo nagusia, bere esanetan.

Mundaka Festival: musika, natura eta gastronomia, eskutik

The Sonics, Echo & The Bunnymen eta Loquillo bezalako atzerriko talde eta bakarlariekin batera, We Are Standard, Belako eta beste hainbat euskal talde izango dira uztailaren 30etik abuztuaren 1era Mundakan egingo den jaialdi berrian

 JULENE LARRAÑAGA



EMANKOR Sareko kideak buru-belarri ari dira Mundaka the Basque Music & Cook Festival jaialdia antolatzeke lanen azken txanpan. Uztailaren 30ean, 31n eta abuztuaren 1ean egingo da jaialdiaren lehenengo edizioa, eta dena espero bezala aterada dadin harimutur guztiak ondo lotu nahi dituzte. Izan ere, gauzak espero bezala ateratzen badira, “geratzeko datorren ekimena” izango baita Mundakan aurrez estreinatuz egingo den nazioarteko jaialdia.

Hiru egunez, gastronomia, natura eta musika uztartuko ditu Bizkaiko kostaldean egingo den hitzordu berri honek, eta parerik gabeko eszenatokiaren gainera, non eta Urdaibaiko Biosferaren bihotzean. Izan ere, Mundakako Santa Katalina lurmuturra izango da jaialdiaren epizentroa. Emanaldi nagusiak, musikari loturikoak batez ere, bertan egingo dira. Hala ere, antolatzaileen esanetan, “herri eta eskualde osora zabaltzea” da jaialdiaren helburua, udako turismoaren indarra aprobetxatuz eta kulturaren balioa azpimarratuz.

Zalantzarik gabe, musika izango da jaialdiaren bizkarrezurra. Santa Katalinan bertan, bi gune izango dira kontzertuez gozatzeko. Batetik, We are BC gunea, euskal talde eta bakarlariekin agertoki izango dena; eta, bestetik, nazioarteko taldeak hartuko dituen We are Music deituriko gunea.

Hauek dira iragarri diren atzerriko kartel buruak: Anti-flag hardcore banda estatubatuarra (*American Spring* lan berria aurkeztuko dute), Loquillo artista espainiarra, Echo & The Bunnymen 1980ko hamarkadako post-punk mugimenduko talde britaniarra eta The Sonics estatubatuarrak. Berrogei urteren ostean disko berria argitaratu dute azken hauek eta beraz aurkeztu arituko dira Mundakan. Nazioarteko puntapuntako talde hauen gain, baina, hamaikaxko euskal talde ere igoko da Santa Katalinako oholtzara. Izan ere, eta Mundakakoa nazioarteko jaialdi lez jaio bada ere, Euskal Herriko taldeen partaidetza sustatu nahi dute antolatzaileek. Hala, kartela osatzen duten taldeen %80 Euskal Herriko bandak dira.

Musikaz gain, beste hainbat jarduera ere izango dira hiru egun horietan Mundakan, herriko beste zenbait gunetan. Talaian eta herriko frontoian, esaterako, bertako gastronomia eta produktuen erakustaldiak eta dastaketak eskainiko dira ostiral eta larunbatean, 11:00etatik 14:30ak arte. Gainera, ume zein nagusientzako sukaldaritza tailerrak ere izango dira euskal sukaldarien eskutik, bertoko ekoizle eta produktuei bultzada eman asmoz. Jaialdia Mundakan eginda, gainera, nazioartean ezaguna den Mundakako *ezker olatua* ere protagonista izango da. Hori horrela, ume zein nagusientzako surf tailerrak eta zeharkaldiak antolatuko

dituzte. Azkenik, Mundakako kostaldea garbitzeko jardunaldi bat eta bideo proiektioak izango dira.

“Jaialdi paregabea, ingurune paregabea”. Halaxe aurkeztu dute antolatzaileek Mundaka the Basque Music & Cook Festival. “Gastronomia, musika eta natura maite duenarentzat aukera-aukerako zita”, nabarmendu dute, eta, gainera, “bestelako jaialdi handietan pilatzen den jendetza gabe”. Santa Katalinak 5.200 laguntzako lekua eskaintzen badu ere, 4.000ra mugatuko dute kontzertuetako sarrera, “jendearen erosotasuna eta segurtasuna ziurtatzeko”. Hala ere, ekimen honen harira, Mundakara 4.000 lagun baino gehiago hurbiltzea espero dute eta horregatik zabaldu dute jaialdia herrira.

Kontzertuetarako abonua salgai daude jada www.mundakafestival.eus orrialdean. Hiru egunetarako abonua 55 euroren truke eskuratu daitezke. Egunez-egun, oстера, 20, 25 eta 30 euroko prezioak izango dituzte kontzertuetako sarrerek, ostegun, ostiral eta larunbaterako, hurrenez-hurren. Santa Katalinako emanaldiak 19:00etatik aurrera izango dira, goizaldeko ordu txikiak arte. Herrian, berriz, goizean hasi eta 18:00ak bitartean izango dira ekimena, aukerak. Gainera, antolatzaileek jakinarazi dutenez, Sukarrieta eta Bermeotik autobus zerbitzu berezia eskainiko da egun horietan Mundakara gerturatzeko.

BELAKO

Aski ezagunak ditugu Belako taldeko neska-mutilak: Josu, Lore, Cris eta Lander. 2011n Gaztea Maketa Lehiaketa irabazi zutenetik sekulakoa izan da mungiarrek lortu duen arrakasta. 2013an kaleratu zuten lehen diskoa, ‘Eurie’, eta lan horrekin eman zuten lehen kontzertu bira handia. Elvis Costello edo Crystal Fighters bezalako taldeen telonero izan dira. New wave britaniarra oinarritutako hartuz, punk-rock doinuak zein melodia elektronikoa berroak eskaintzen dituzte beraien abestietan. Kantu gehienak ingelesez sortzen dituzten arren, euskarazko zenbait abesti ere badituzte.



MOBYDICK

2008an hasi zuen Eneko Burzako proiektu folk-akustikoa, aurretik (Nun, Bizhil, Tribute to QOTSA...). ‘I am God’s friend’ kaleratu zuen, aurretik lana. Geroztik, kontzertu ugari eman ditu. Azken lana, ‘Cotard delusion’, cron...



SMOKE IDOLS



Kontzertuen egitaraua

Uztailak 30, osteguna

Anti-flag
Smile
Belako
Rural Zombies
The Uski's
Optigan 1

Uztailak 31, ostirala

Loquillo
Dead Bronco
Travellin' Brothers
Mobydick
Sinnerdolls
Cactus
Unclose
DJ Nash

Abuztuak 1, larunbata

Echo & The Bunnymen
The Sonics
Peachy Joke
We Are Standard
Smoke Idols
Darko DJ
Move Martin DJ

C'ACTUS

Beste talde batzuetako musikariak elkartzearen ondorioz sorturiko proiektua dugu Cactus: Iñigo, Gatibuko kitarajole ohia; Santa, Kodeko baterijole izanikoa; Unai, gaur egun Set taldeko baxujolea dena; eta Markel, Pog Mo Thon bandako abeslari ohia. Taldeak 2013ko urtarrian egin zuen lehen agerria eta aurrez kaleratu dute lehen diskoa.

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK ·

arkitektura

Arkitekturaren prozesuari buruz

Arkitekturaren eraikuntza ikusgai den materialitate bat da, ukitu eta bizi daitekeena. Baina arkitektura ikusten dena baino gehiago ere bada. Ikusezinak diren hainbat aspektu deskubritzera goaz ONYON arkitektoen eskutik




ULA IRURETAGOIENA

ELGOIBARKO Albitxuri industria-poligoan, MEKA deitzen den Formakuntza Zentro Profesionalaren atarian arkupe delikatu bat inguruneke pabiloiztarretatik gailentzen da. Egitura metaliko batek hiruki-espazio bat mugatzen du eta estaldurarako erabilitako beira garden eta zehar-argien bidez errelexu-efektuak sortzen dira. Ikus-efektu hauek espazioa zabaltzen dute batzuetan, espazioaren barrenetik harago ikustea ahalbidetzen da besteetan, edo ingurune eraikia islatzen da. Nola lortu da hain leku txikian, hain baliabide murriztekin, hainbeste egoera sorta eta azalera hain ongi probestua egotea? Erraza: lan-prozesu bat izan delako atzetik dena probatzen.

MEKako aterpearen sormen-prozesuan baliabide ugari erabili dira. Digitalizazioaren aroan garen arren, esku-pentsalaria ezinbestekoa dela esaten duenik bada. Horrek ez du esan nahi 3D irudikapena baztertu behar denik, ez eta tamaina txikian egindako eraikinaren maketarik ere. Teknika bakoitzak bere helburu zehatza bilatzen du eta helburuen garapenerako tresna-aukerak dira. Marrazkiek lehen ideiei forma ematen laguntzen dute, maketak espazioaren kontrola ahalbidetzen du eta irudi tridimentsionalak gainontzeko efektuen gaineko informazioa ematen du. Teknika eta bide guztiak dira ongi etorriak, sormen-prozesuak ez baitu meto-

“Arkitektura sormen prozesuko diskurtsoa, nahiak, egin gabekoa eta egindakoa, denek osatzen dute ikusgai denaren narrazioa”



Lerroon gainean, Elgoibarko MEKako aterpearen proiektua eta azken emaitza. ONYON HUERTO CREATIVO

dologia on edo txarrik, ez dago errezetarik.

Saiakera lan honen bidez, muga ekonomikoak tarteko, azken “produktua” erdietsi da, irudikapen tekniketatik eraikuntzaren esparru errealerak salto eginaz. Kontua da, eraikin baten eraikuntza bukatutakoan, orduantxe jarri ohi zaio la fokoa. Arkitektura egunkarietan agertzen den okasioetan, ia beti inaugurazioaren festa giroari loturik izaten da. Izan ere, estreinaldi egun hori seinatzen da eraikinaren hasiera unea. Baina, zer gertatu da egun hori iritsi bitarteko epean, eta hasierako ekitaldiaren ostean? Arkitektura sormen prozesuko diskurtsoa, nahiak, egin gabekoa eta egindakoa, denek osatzen dute ikusgai denaren narrazioa.

Bestalde, MEKako aterpearen argazkietan behin-behineko egoera bat ikusgai dela baieztatu dezakegu. Arkitektura bizitzeko eta erabiltzeko da, beraz, eraikuntza lanak bukatutakoan eraikinaren bizipena hasten da. Aterpe hau ikasleen arteko harremanak sendotzeko espazioa da, ongi diseinatutako bilgune bat, pertsonen arteko gertakizun askoren edukiontzia. Hemendik aurrera bertakoak izango dira espazioaren gidolari nagusiak eta arkitekturaren biografia eraikitzaileak.

DATUAK

EGILEAK

ONYON Huerto Creativo, Ion Zubiarré Ros eta Hugo Prades Claessens kideek osatzen dute, eta Elgoibarko lan-abentura losu Gabilondo Altunarekin batera aurrera eramaten da. Sormena arkitekturaren ikur bilakaturua, ortuaren metaforari bat egitean, ortu baten prozesu izaera azpimarratzen da, hala nola dibertsitateak. Ortu batean fruituak ateratzeko esfortzua, denbora eta mimo handia behar da. Horrelaxe definitzen dute lonek eta Hugok beraien egitekoa. www.onyon.org

1991

URTEgrafiak



1991n argitaratu zituen
Linazasorok bere lehen
bi libururuak. ORTZADAR



Epizentroan

Karlos Linazasoro

Idazlea

URTE bat gogoangarria, zure bizitza aldatu edo zedarritu duena... eta nik ez nekike bat bakarria aukeratzen jakingo. Denek daukate zerbait berezia, ahaztezina, iluna edo ospakizunezkoa, esanezina edo misteriozkoa. Beraz, 1991. urtea aukeratu dut, orduantxe argitaratu nituelako nire lehen bi libururuak: *Eldarnioak* bata, eta *Udazkeneko karabana erratua* bigarrena. Orduko pozen txingarrak ez dira oraindik itzali. Eta aukeratu dut urte hori, halaber, 1990ean ezkondu eta 1992an gure seme Karla izan genuelako. Bien tartean gelditzen da, bada, 1991.a, niri gertatu zaizkidan gauzarik inportanteenen epizentro gisa.

Hogeita zortzi urte nituen *Eldarnioak* argitaratu zenean, hogeita bederatzik poema liburua kaleratu nuenean. Mundua jan behar nuela gogoan dut, ordurako irakurriak nituen betiko iltzatuak gelditu zaizkidan maisuen orrialdeak, orduan argi xamar ikusi nuen nire bidea-

ren arrastoek nondik nora jo behar zuten. Inozo xaloa ni! Ez zaizkit indarrak ahitu, baina maiz herrenka eta galdurik ibili ohi naiz ganduak hartu duen bidezidorrean barrena, eta hala ere bada indar ezkutu alimaleko bat, zer telurikoren bat, letrak jostera bultzatzen naue-
na, ero baten modura. Okerreko aukera egin nuela? Egia esanen dut: ez dut uste zuk aukeratzen duzunik idazle izatea, baizik eta literaturak berak aukeratzen zaitu zu idazle izateko. Ez dut uste kasualitate hutsea denik. Badago sehaskatik bertatik datorren zerbait...; idazketan bezalaxe, beste ofizioetan ere, odolaren bidez barreiatzen den pozoizko halako bat...

Ez, ez da eginbehar xamurra egokitu zaidana. Baina, aldi berean, polita da, munduan den ofiziorik ederrena segur aski. Arazoa horixe du, ordea: ofizioa dela, eta ez jolas denborapasako bat. Eta ez dit, niri behintzat, pozkida handirik ekarri. Sendabidea eta ezagutza ematen dizkizu, edertasunaren lorea, eta zer gehia-



Ez dut uste zuk aukeratzen duzunik idazle izatea, baizik eta literaturak berak aukeratzen zaitu zu idazle izateko"

Datorren astean...

Lutxo Egia

go behar duzu orduan? Oi, banitatearen lanak! Eta horrek guztiak, hartzen dituzun zeregin neketsu izugarriak, norentzako dira? Zerorrenztako soilik? Elkarrizketarik sortu ezean, zertarako idatzi? Oihartzunik jaso gabe, norentzatzat hitz horiek guztiak?

Idazleak idazletzatik kanpo dauden kontu asko kudeatzen jakin behar du. Albo-kalte horiek. Gainerakoan, ez du luzaroan iraungo. Gogoan dut nirekin batera idazten hasi ziren askok eta askok aspaldi utzi ziotela jardunari. Irautean dago koxka. Hazia eroin eta itxarrotean. Pazienteki eta presarik gabe. Iraupen-proba bat da gurea, jakin egin behar da martxa egokia hartzen eta indarrak gordetzen. Baina hain da zaila etsipenari eustea...

Hari berari tira eginez, baina negarrak albo utzita, esan dezaket, eta ozen eta harro esaten dut gainera, datorren urtean hogeita bost urte beteko dituztela nire eldarnioek eta nire karabana erratuek, zilarrezko ezteiak beraz, eta urteurren hori ospatzeko zerbait berezia egin beharko dudala, kontuak merezi du-eta. Nork esan behar zidan! Tinko irauten dugula! Eta hauxe ez litzateke posible izango lehen aipatu ditudan beste bi datetako protagonistek (sendiak, alegia) ez balidate animatu, lagundu, maitatu eta behar-beharrezkoak diren patxada eta harmonia eman. Eztei horiek irakurleekin ospatuko ditut (sentitzen dut), baina batez ere egunez egun pairatu nauten emazte eta bi semeekin (sentitzen dut). Hori 2016an, eta hori bai izanen dela urte gogoangarri eta apartekoa, bizi bagara bederen. Eta ni hilezkorra naizela badaki Jainkoak.

artez
euskara zerbitzua

itzulpenak - hizkuntza aholkularitza - papergintza

944 480 000

posta@artez.net

www.artez.net

